

3. Senar-emazteak

Albitzu, Argiña, Azpuru, Ibarondo



3.1

Margarita Beldarrain Artetxe eta Domingo Gorrotxategi Sagardui, Albitzueko baserrikoak. 1927 inguruan ezkondu eta bost seme-alaba izan ebezan: Tomas, Nemesia, Elena, Feliziana eta Manuel.

Domingo Beldarrain eta Ramona Artetxeren zazpigarren oinordekoa dogu Margarita. Ama, Ramona Artetxe, Olarreko Miguel Artetxeren (1882-VII-5an jaioa) alaba izan zan.



3.2

Manuel Arzuaga Larrea (1878-II-11n jaioa) eta Juana Artiñano Uribastera, Albitzu-goikoa baserrikoak. Manuel, bertakoa, bost neba-arrabatan bigarren izan zan (Pedro, Manuel, Kasimiro, Margarita eta Erramona). Manuel 1961an hil zan, 84 urtegaz; Juana, 1976.ean, 89 urte ebazala. Argazkia ezkondu ziranekoa da, 1910 aldekoa.



3.3

Argiñako Etxebarri baserriko Juan Etxebarria Madariaga eta Zeanuriko Maria Intxaurbe Zuloaga. Juan eta Maria 1925 aldera ezkondu eta Mari, Puri, Plazida, Juan Mari eta Josefina seme-alabak izan ebezan. Juan 1966.ean hil zan, 76 urtegaz, Gabon egunean. Mari 1960-VIII-7an hil zan, 69 urteko zala.



3.4

San Kristobalگو (lehen Santa Luzia eta gaur Aixea izeneko tabernakoa) Rosalia Barroeta Barrenetxea (1963-III-14 hil, 78 urtegaz) eta San Kristobalگو Elgetzu baserriko Domingo Atutxa Etxenagusia (1960-XII-30n hil 72 urtegaz). Honeek hamairu seme-alaba izan ebezan; hamabigarrena Mari Tere, gero Argiñako Juan Mari Etxebarriagaz ezkonduko dana.



3.5

Pedro Goikoetxea Bilbao (*Peru Argiña*) eta Dolores Etxebarria. Pedro 1896-II-2an jaio eta 1921an Isidora Etxebarria Bilbaogaz ezkondu zan. Hiru seme izan ebezan, Pedro, Bizente eta Santi. Isidora hil eta bere aizta Dolores hartu eban emazte bigarren ezkontzan. Euren seme dogu Jose Antonio Goikoetxea. Pedro 1957-X-31n hil zan, Dolores 1978-V-20an, 75 urteko zala.



3.6

Orozkoko Urigoitiko Mikaela Sautua Olabarria eta Argiñako Tomas Artaraz Artabe (1887-V-14an jaioa). Argiñako Felipe eta Rufinaren oinordekorik zaharrena dugu Tomas (gero Justo, Juan, Marzelino eta Juanita). Tomas eta Mikaela 1936 aldera ezkondu eta alaba bakarra izan eben, Karmen. Tomas 1975an hil zan, 88 urtegaz.



3.7

Azpuruko Juan Etxebarria Bilbao eta Larragotiko Benita Goti Agirre. Juan 1886.ean jaio eta 1951-I-10ean hil zan, 65 urtegaz; Benita 1895ean jaio eta 1954-II-28an hil zan, 58 urtegaz.

Juan zazpi neba-arrebatan zaharrena dogu (Juan, Josefa, Santa, Katalin, Dolores, Balentin eta Isidora).

Juan eta Benita 1917 aldera ezkondu zirean eta bost seme-alaba izan ebezan: Inazio, Jesusa, Gildo, Santi eta Klaudio.



3.8

Argiñako Toribio Bilbao Elexpe eta Juanita Astondoa Artetxe. Toribio (1906-IV-21ean jaio eta 1967-V-20an hil) Juan Tomas Bilbao Elortegi eta Franziska Elexpe Zabalaren seme izan zan. Juanita Bizente Astondoa Linaza eta Maria Artetxe Ozerinen alaba dogu (1912-XI-24an jaioa). Toribio eta Juanita 1940-X-3an ezkondu eta lau seme-alaba izan ebezan, Maria Begoña, Ana Mari, Juan eta Jabier.